

De más está el *recordar* que ceniza es *Austerri*.

Sesudos observadores aseguran que el Carnaval hoy no tiene razón de ser.

Creencia de otros es que el Carnaval resulta varias veces durante el año, y terceras opiniones dicen que si continúan así los tiempos, el Carnaval será permanente, *iñauteri* perpetuo.

Tales cosas se ven!

Mendiz-Mendi.

GIPUZKOATARREN ETA ERROMAKOEN ANTZIÑAKO KONDAIRA

(PAULO ZAMARRIPA JAUNARI DONKITUA ORDAÑETAN)

Fueroak eta libertadea.

I

¿Zertara datoz odol sutuan
Ojuz aurrera?

¿Zertara datoz Erromatarrak
Euskal-lurrera?

¿Beldurgarriya dala diyote
Berenarrera?

¡Ez datoz suak itzalitzeko
Leku charrera!

Oktabianok, gerrariyaren
Buruzariya,
Bere banderaz estali nai du
Mundu guziya:

¿Ire eskuan arkitzen dala
Gure biziya?

Ichok apur bat eta sarri aiz
Danen nausiya.

¿Asko dirala arro sartuak
Gure errira?

¡Eta zer diyoy! Ojala geigo
Baldiñ balira;

¡Ez ikaratu! Laja igotzen
Mendi goitira,

Amilka asten diradenean
Guchiko dira.

Mendi basoan entzunik ondo
Anai esana,

Zantzo irrintzari or, or dijoaz
Etsayagana:

Puskatutzera ziñez aurrean
Ipintzen dana.

Lajiaz pizti gaistuarentzat
Aragi jana.

Milla ta millak sartu ziraden
 Erromatarrak,
 Eta euskaldun mendi-mutillak
 Ale bakarrak;
 ¿Uste zoroan guri kentzera
 Mendi ibarrak?
 ¿Non ziran diña oñezko arro
 Ayen indarrak?
 ¿Burrinbotsean sutzen zirala
 Ta aserrean?
 Illak or daude mendi altuan,
 Ibai ertzean;
 ¿Zer uste zuten eraso arren
 Su chingarrean,
 Odol gabeak arkitutzea
 Euskal-lurrean?
 Oktabianok ezagaturik
 Dana gaitzea,
 Nola zepuan eroritzen dan
 Otso gosea,
 Beldur ikaran gerta etzedin
 Gerra luzea,
 Eskatu zuen guda batean
 Bukatutzea.
 Baita euskaldun agintariyak
 Gizon itzean,
 Erantzun ziyon ¡bai milla bider!
 Bere pozean:
 Iru-eun mutill orche daukazkit
 Mendi atzean
 Eta etorri onenarekiñ
 Nai dezunean.
 Soro zabal bat berdez jantzia
 Errezillkua,
 Erromatarrak zanpatutzeko
 ¡A zer lekua!

Burniz josita illotzik uzten
 ¡Ango gustua! . . .
 Soro berdea gorritzeraño
 ¡Alajainkua!
 Aupa t'irrintziz eraso ziyen
 Arras gogotik,
 Odol berean busti ta bazan
 Pilla galantik:
 Arkaitzak ere alcha nai zuten
 Beren lekutik,
 Etsayak nola erortzen ziran
 Ikusteatik.
 ¿Orretarako etorri ziran
 Koleratuak?
 ¿Zer uste zuten arkitutzia
 Ardi lotuak?
 Bost urterako mututurikan
 Gerra kantuak,
 Leiza zuluak gordiaz bapo
 Zurriatuak.
 Oktabianok zaiturik ura
 Bide charrean,
 Mutillak ezur karrask'ausita
 Illak lurrean:
 Bere berela errabi biziz
 Ta su garrean,
 Adierazo zuen lasterka
 Errom'aldean.
 Erromakoak lasaitziatik
 Biyotz kolera,
 Atozte, ziyen, gizonez-gizon
 Geren lurrera:
 Bai bigaldure mutill pizkorrak
 Erantzuerak,
 —Esanaz—presta zaitzte ariñ,
 Sarri or gera.

(1) Como hay Dios.

II

Arrano bizi egalarien
 Modu berean,
 Eun euskaldun bildu ziraden
 Guztiz pozean;
 Lartaun echeko semea zuten
 Danen aurrean
 Bai irten tre salto ta brinko
 Soñu gerrean.

 Igeska urak duazten ibai
 Tiber ertzean,
 Bere kontuan bezela dauden
 Mendi atzean,
 Zelai zabal bat sasi lar gabe
 Bide luzean,
 ¡An, an erortzen ziran illotzik!
 Burni otsean.

 Mendi mutillak, Erromatarrak
 Danak gertuak,
 Odoi tarteko chimisten gisa
 Su ta gartuak;
 Burni zorrotzak jazar biziyen
 Elkar sartuak
 Eta lur jota akabatzeko
 Amorratuak.

¡O! zerey gogor gudadzen ziran
 Mutill guziyak,
 Lur egiñ eta odol beltzean
 Gero nasiyak;
 Amari deika oju tristean
 ¡Ango antsiyak!
 Negar minduak eta chiliyo
 ilzugarriyak!

 Utsa bezela arturik danak
 Karrañi otsak,
 Arkaitz gogorrik etzan ez nola
 Ayen biyotzak;
 Pechu barrenen kamusten ziran
 Burni zorrotzak,
 Iru baña sei nayago utzi
 Jo ta illotzak.

 ¡Ara igeska! geiditutako
 Banakak zutik,
 ¡Ara igeska! mendiyen gora
 Jazar lekutik:
 ¿Baña zergarik itzultzen dira
 Orren gogotik!
 ¡Euskaldunaren eskuetan ez
 Erortziatik!.....

III

Cerrak aztu ta bizi zitezen
 Bertan, danari,
 Beren alaba eskeñi zien
 Euskaldunari;
 Baita mutillak ontzat arturik
 Eskeñiori,
 An ezkonduta bizitu ziran
 Guziyak ongi.

Anaitasusak azpiraturik
 Gerra tristea,
 Tronpeta otsan zabaldu zuten
 Gozoz pakea;
 Libru zarretan arkitutzen da
 Argi bidea,
 Eskudatzeko fueroak eta
 Libertadea.

VICTORIANO IRAOLA.

